# ADOS

## EUSKADI GLOBALERAKO ETORKIZUN EGITASMOA.

## I.- Sarrera.

ADOS " ekimen politiko,ekonomiko eta sozial berria da " , Euskadiren etorkizunerako oinarri zabaleko egitasmoa garatzea bilatzen duena, euskal gizartearekiko lankidetzan oinarrituta eta bere eskari nagusiak kontuan hartzen dituena

ADOS ekimena lau helburu hauen inguruan egituratzen da:

1. Datozen urteotarako bizikidetza demokratikorako euskal esparrua indartzeko eta sendotzeko egitasmoa garatzea.

2. Euskal hiritargoarentzako autogobernu sistema berria garatzea, XXI. Mendeko erronkei erantzuna emateko, aukera demokratiko guztiekiko errespetuarekin eta adostasunerako izpirituan oinarrituta.

3. Euskadiren nazioartetze ekonomiko, politiko eta kulturalerako egitasmoa garatzea.

4. Kultura politiko berria bultzatzea hiritartasun aktiboan oinarrituta.

EAJ-PNVk egitasmo hau garatzeko orduan etengabeko lankidetza eta alderatze lana egingo du honako eragile hauekin:

1. Gizarte zibila.
2. Euskal eragile ekonomiko eta sozialak.
3. Euskal eragile politikoak.
4. Europa eta nazioarteko eragile ekonomiko,politiko eta kulturalak.

Era berean,ADOS egitasmoa lau alditan garatuko da, eta bakoitzean kontuan hartuko dira arestian azaldutako lau eragileak:

1. ALDIA: Gure egoera politiko, ekonomiko eta sozialaren diagnosia eta berau gizarte aurrean aurkeztea.

2. ALDIA: Gizartearekin alderatzea, ekarpenak jasotzea eta partekatutako lana, Euskadirentzako etorkizun egitasmoa garatze aldera.

3. ALDIA: Egitasmoa aurkeztea eta gizartean zabaltzea.

4. ALDIA: ADOS ekimena euskal erakundeetan,estatuko erakundeetan eta nazioarteko erakundeetan garatzeko proposamena.

ADOS ekimenaren abiapuntuan dago EAJ-PNVk euskal aberria eraikitzen jarraitzeko egitasmo partekatua aurkezteko duen bokazioa, eta Euskadi mundu globalaren abangoardian kokatzeko duen borondatea.

ADOS egitasmoak bi abiapuntu estrategiko eta osagarriak ditu: gure inguru hurbilaren eta nazioartearen egoera politiko,ekonomiko eta sozialaren azterketa batetik, eta gure autogobernu sistemaren oraingo garapen maila bestetik. ADOS-ek beraz, hausnarketa eta proposamenak egiteko prozesua jartzen du martxan Euskadi modernizatzeko eta bere erakunde sistema euskal gizarteak bere nortasun berezituaren arabera dituen beharrizanetara egokitzeko.

## II.- Ekimeranen Gida-Oinarriak

EAJ-PNV lehen euskal alderdi politikoa da eta bere egoera horretatik, herrialde partekaturako akordio berria bilatzeko proposamena aurkezteko ardura hartzen du bere gain. Arrazoi nagusia du horretarako: eragile politikook egiaztatu ahal izan dugu bidera ezina dela alde bakartasunetik egitasmo bateratu bat egituratzea, hau da, “ hurkoa ” den horren ideiak ukatuta.

Gure herriarentzako etorkizuna egiteko orduan, Euskadin demokratikoki onartua izan den edozein herri egitasmoa gauzatzeko posibilitatea dagoela onartu behar da, eta era berean hitzartu behar dira egitasmo hori garatzeko baldintzak.

Askatasuna, ardura, solidariotasuna eta gizarte justizia dira ekimen hau gidatzen duten baloreak . Horrela eguneratzen dira EAJ-PNVren oinarri gizatiarrak, alderdi honek bere ibilbide osoan islatu izan du europar korronte demokratiko handiek partekatzen duten idearioa.

EAJ-PNVk euskal aberriarekin duen konpromisoa agerikoa da: autogobernuaren erakundeen sendotzeak , ekonomia eta gizarte mailako aurrerapenaren aldeko apustuak eragin dute Euskadi oraingo ongizate eta modernizatze mailetara iristea. Hauek dira euskal herriaren aurrerapena bultzatu duten motoreak, eta hala direlarik, orain aurkeztera gatozen etorkizunerako egitasmo hau bermatuko dute.

## III.- Diagnosia edo abiapuntua.

ADOS ekimenak abiapuntutzat hartzen du azken hilabeteotan garatu izan diren Think Gaur Euskadi 2020 eta Think Gaur Nafarroa 2020 hausnarketa prozesuen diagnosia.

Denok ezagun dugunez,euskal errealitatea gure inguruan gertatu izan diren eraldaketa sozial, ekonomiko ,kultural eta politikoek egituratzen dute. Euskadi gaur egun herri anitza da alderdi politiko, sozial eta kulturaletik begiratuta, eta honako ezaugarri hauek ditu:

1.- Globalizazio prozesuak eta IKTek euskal gizartearen harreman zerumuga zabaldu dute. Ondorioz, Euskadiren bizi-esparrua aberatsagoa eta konplexuagoa da. Errealitatea, norbanakoaren erreferentzia esparruan (“pertsona”) eta talde erreferentzia esparruan ( “erkidegoa”) askoz ere anitzagoa eta konplexuagoa da, eta esparru honetan emandako aldaketak oso arin gertatzen dira.

2.- Gizarte ongizate maila altua den arren, merkatuak eta kontsumoak eragin handia dute pertsonen bizimoduan; horren eraginez mugatu eta murriztu egiten da gurean ohikoak izan diren eta erkidegoarekiko konpromiso baloreek gizartean duten presentzia. Egia da aurrerapen ekonomikoa ekimen pribatuak eta publikoak partekatu duten esfortzuari esker gertatu dela. Dena dela, garapen ekonomiko arduratsua sendotzeko balore gizarteen indartzea ez da behar zen bezala eman. Espekulazioan oinarritutako aberastea eta hazkunde ekonomikoa ez direnez gizartean behar bezala gaitzetsi, norbanakoaren lana eta esfortzuaren balorazioa ahuldu egin da.

Jarduera politikoaren esparru sozialak ere hainbat eraldaketa bizi ditu hiritarrek politikarekin duten harremana erabat baldintzatzen dutenak.

1.- Europar Batasuna moduko erakunde politikoak sendotu dira, globalizazio ekonomikorako ematen den prozesuari erantzuteko.

2.- Hazkunde bidean dauden esparru ekonomiko eta sozialen indarra eta eragina izateko gaitasuna, ongizate eta segurtasunerako esparru publikoa egituratzeko ekimen politiko gaitasuna berregituratzen ari da.

3.- Indibidualismoaren hazkundea bizi dugu, eta ondorioz gutxitu egiten da erkidegoarekiko ardura. Testuinguru honetan parte hartze politikoak behera egiten du eta gizartea eta politikaren arteko distantzia handitzen da eta bereziki gizartea eta alderdi politikoen arteko distantzia. Alderdi politikoen funtzionamenduak nabarmen nabaritu du aldaketa hori.

4.- Demokratikoki aurreratuta dauden gizarteetan, kultura politikoaren produkzio eta gizarteratzea , gero eta lotuagoa dago informazio eta komunikazio gizarteak egiten dituen eskariekiko; gizarte aurreratuen kultura demokratikoa eta erabakiak hartzeko prozesuak baldintzatzen ditu.

Eraldaketa hauek guztiek bizi dugun krisi egoera moduko testuinguruak okerrera ekarri dutelarik, ondorio garrantzitsuak dituzte gure etorkizunean. Batez ere, aipatu izan den moduan, kultura etikoa eta parte hartze politikoa ahuldu diren une hauetan.

Euskadin, hausnarketan sartzea ezinbesteko dugun beste elementu bat dugu, gure bizikidetza larriki kaltetzen duelako: ETAk eragindako mendebaldeko demokrazien testuinguruan, bakarra den bortxakeria da. Bortxakeria honek , arrazoitzeko inolako argudiorik gabe, sufrimendua eta mina eragin ditu Euskadi barruan eta Euskaditik kanpo. Asko deuseztatu du. Ez du ezer eraiki. Bere ekintzak kalte konponezina eragin du eta bizikidetza publikorako esparrua eta kultura demokratikoa kaltetu ditu.

Euskal gizarteak eragile politiko guztiei exijitzen die bortxakeria eta terrorismotik argi eta era absolutuan aldentzea, eta bide politiko eta demokratiko hutsekiko konpromiso argia izatea.

Guztiz ezinbestekoa da, politikatik ere, bizikidetzarako euskal eszenatokia bultzatzea, onartuak diren balore demokratikoetan oinarrituta, gizarte konplexu,anitz eta aurreratuak dituen erronkei aurre egiteko. Bortxakeria terroristaren ondorio ezkorrek eskarmentu gisa balio behar dute hurrengo belaunaldientzako bizikidetzarako etorkizun sendo eta balioduna eraiki dezagun.

## ADOS EKIMENA

Horrela ba, ADOS ekimenak Euskadirentzako herri egitasmo proiektua eraikitzea planteatzen du. Eta hori egiteko, euskal errealitatetik abiatzen da, gainditu beharreko oztopoak zeintzuk diren ondo jakinda, eta era partekatuan garatua den herri egitasmo integralerako oinarriak proposatuta.

**Euskal auzia.**

Euskadin , erro historikoa duen arazo politikoa dago. Erronka da nortasun politiko partekatuaren onarpen soziala zabaltzea. Egitasmo guztiak izan beharko lirateke zilegiak eta egingarriak, beti ere giza eskubideekin eta oinarri demokratikoekin bat etortzen badira. Eta, egitasmo guztietan beharrezkoa izango da hiritarren bultzada eta onarpen zuzena, jakinik Euskadiren etorkizuna era askean eta demokratikoan erabakitzeko gaitasuna eta eskubidea dutela.

Trantsizio demokratikoaren une historikoan, Gernikako Estatutua topa-gunea izan zen, legezkotasun politikoaren subjektu bera partekatzen ez zuten eragile politikoen atxikimendua lortu zuelarik. Baina, Estatutuak hasieran zuen hitzarmen zentzu hura aldatuta ikusi du, era aktiboan geldiarazi egin delarik garatzeko duen gaitasuna. Horregatik gertakari berrien errealitateak trantsizio berrirako eta prozesu konstituziogile berriaren beharra inposatuko du Euskadin, marko berri baten inguruan harreman instituzional eta politikoak berregituratzea ahalbidetuko duena.

Testuinguru honetan, ADOS ekimenak Agirre Lehendakariak berak duela 50 urte planteatu zuen euskal aberria bultzatzeko izpirituan oinarritzen da .

Agirre Lehendakariak Europarekiko bokazio argia zuen eta ikuspuntu hartatik planteatu zuen Euskadiren garapena. “ Etorkizunerako ikuspegi ” hura indarrean dago orain erkidegoaren errealitate irekiago eta elkarrekiko menpeago batean. Berriz ere, Europaren eraikuntza EAJ-PNVrentzat aukera eta zerumuga da, denon artean eta Euskaditik abiatuta, mundu global berriak ezartzen dituen erronkei erantzuna emateko .

Euskadi nazioa da zentzu politiko, ekonomiko eta kulturalean. <u>Ikuspuntu ekonomikotik</u> Kontzertuaren eta Hitzarmen Ekonomikoaren funtzionamendu eta gaitasunean dago oinarrituta. <u>Ikuspuntu kulturaletik</u> Euskadik bere nortasun kulturala eta bere hizkuntza indartu behar ditu. Errealitate hori da euskal erkidegoa definitzen duena; euskara lurraldea, Europa barruan erreferentzia esparru propio eta berezkoa. <u>Gizarte ongizate terminoetan</u> Euskadik pertsonen ongizatea bermatzeko zerbitzu eta politika publikoen eredu eraginkor eta ondo dimentsionatua aurkezten du. <u>Ikuspuntu politikotik</u> Euskadi, errealitate politikoa da, legezkotasun politikoa duen subjektua; autogobernua du eta nortasun eta autonomia propioa duen garapen instituzional aurreratua.

ADOS egitasmoak aurrera egin nahi du ikuspuntu propiotik abiatuta eta aberri errealitate horren garapenean oinarri hartuta; euskaldunon protagonismotik, Euskadiko hiritargo osoaren protagonismotik abiatuta. Atxikimendurik zabalena lortu behar dugu euskal errealitatearen inguruan partekatzen ditugun oinarri hauen inguruan. Etorkizunerako herri egitasmo berria planteatu nahi dugu. Horixe da gure erronka.

## Aurrerapena eragozten duten oztopoak.

Eragileen arteko komunikazio politikorik ezak ezereza baino ez du ematen. Etengabeko aurkaketak gatazka instituzionalizatu egiten du eta herri gisa aurrera egiteko eragingailuen egituraketa ahultzen du. Erroak hurrengo arrazoi hauetan dituen mesfidantza erraldoi hau gainditu behar dugu :

1.- Egitasmo politikoak defendatzeko portaerekiko dimentsio etikoaren inguruko adostasunik eza.
2.- Denon egitasmoak erabili egiten dira eta alderdikerien zerbitzura jartzen dira.
3.- Iraganean erdietsitako adostasunak sakrifikatu dira, etorkizunerako egitasmo alderdikoien alde.
4.- Testuinguru konplexuetan, “ hurkoaren “ proposamenetarako arrazoiak bilatzeko eta elkar eragiteko kulturarik eza.

Ezinbestekoa da giro politiko bat eraikitzea, akordioak erdiestea ahalbidetuko duena eta arauzko testuinguru partekatuan ezberdintasunak kudeatzen lagunduko duena. Honek eragile politikoen arteko konfiantza giroa berreskuratzen lagunduko du eta jarduera politikoak euskal gizartearekin duen lotura sendotuko da.

Apurka-apurka eman den euskal instituzioen ahultzeak, “ Euskadirik eza ” izenekoak beste harresi bat altxatu du gure arteko elkar ulertzea serioski eragozten duena. Alde batetik egin gabe dauden transferentziak arrazoirik gabe atzeratu dira. Baina hori ez da arrazoi bakarra: eskumen hustea ere gertatu da, Estatuak bere aldetik garatu dituen oinarrizko legeak onartu direlako. Halaber, azken urteotan estatuaren sistema konstituzionalaren inguruko pentsamolde zentralista indartu da.

Emandako arrazoi horiek direla eta, duela hiru hamarkada lortu zen “ Estatu Anitza ”, ahuldu egin da eta desagertzeko zorian dago. Gaur egun ikusi ahal dugu “ Espainia , bat eta bakarra ” planteamendua itzuli egin dela eta auzitan jartzen direla “ izaera berezitua ” eta euskal herriaren “ eskubide historikoak ” . Ikuspegi aberri anitzak ez du aurrera egin eta ikuspuntu zentralizatzailea nagusitu da.

Akordioa zailago egiteaz gain, bizikidetza marko berrirako negoziaketa ere oztopatzen du. “ oztopo ” honen erakuslerik nagusiena da , egin gabe dauden transferentzien gaineko negoziaketak Estatuan “ bigarren gai gisa “planteatzen direla aurrekontuen gaineko negoziaketari ekiteko orduan. Eta teorian hitzartutako akordioa dena ere “ beharrizan larrian ” edo “ ahultasun egoeran ” baino ez da betetzen.

ADOS-ek oztopo horiek guztiak gainditu nahi ditu,autogobernuaren aurrerakadak aurrera egite politiko, ekonomiko eta kulturala ekarri dituelakoan Gizarteak ongizate maila altuagoak eskatzen ditu eta eragile politikooi dagokigu autogobernuaren aurrerapena zailagotzen duten oztopo horiek gainditzea.

**Egitasmo berriaren oinarriak .**

ADOS egitasmoaren helburu nagusia, printzipio demokratikoan sakontzea da, aberrigintzarako bidea planteatuta eta euskal hiritargoaren parte hartze zuzenetik abiatuta, hori baita etorkizunera begira hartuko diren erabaki guztiak legitimatuko dituena. Ezinbestekoa da euskal hiritarrontzako egitasmo bateratua sortzea. Etorkizuna ez da zatiketatik eta antagonismo politikoa betiko ezartzetik etorriko. Herriek bizirik diraute garai berrietara egokitzeko gai direlako eta denon erronkekiko konpromisotik abiatzen direlako.

Gizarte moderno eta irekietan, aldaketa politikoak eraikuntza prozesu dinamikoaren bidez egiten dira , ahalbidetu egiten da hiritarrek erabakiak hartzea eta errealitate politiko baten instituzionalizatzea bultzatzea. ADOS egitasmoak Euskadiren instituzionalizatzearen aldeko apustua egiten du, gizarte ireki batek mundu globalean aurrera egiteko eta garatzeko orduan egiten dituen eskariei erantzuna emanda .

Horrela ba, ADOS egitasmoak herria indartzeko erabateko prozesua planteatzen du, akordio berri baten oinarrian gure autogobernu politiko eta ekonomikoa zabaltzea ahalbidetuko duena, gure herria subjektu politikoa dela onartzetik abiatuta. Euskadiren hazkunde instituzionala, euskal aberriaren hazkundea gertatzeko, euskal hiritarren eskakizunetan oinarritutako hazkunde progresiboa eragingo duen eta “ zati baten betoa ” ekidingo duen egitasmo berri bat behar da.

Planteamendu honen azpian, Herriek aurrera egiten dute eta biziraupena lortzen dute aldi berrietara egokitzeko gai direlako eta erronka bateratuekiko konpromisoa dutelako.

Planteamendu horretan oinarrituta, ADOS egitasmoak herrigintzaren zutabeei , euskal hiritarrek etorkizuneko garapen eta aurrerapenerako planteatzen dituzten eskabideei erantzun nahi die, gizarte osoaren inplikaziorako oinarria egin dezaten.

Honako eskabide hauek hurrengo terminoetan planteatzen dira:

## 1- Bizikidetza demokratikorako euskal esparrua.

Ezinbestekoa da datozen urteotan bizikidetza demokratikorako esparrua indartzea eta zintzotasunean, solidariotasunean, gizarte arduran, bikaintasunerako konpromisoan eta denon ongizaterako zerbitzuan oinarritutako elkar bizitza sustatzea.

## 2.-Eskubide eta derrigor berdinak.

Berdintasunerako bermea da erkidego anitz, solidario eta aurreratuaren oinarria, gero eta instituzionalagoa dena eta baldintza berdintasuna ezartzen duena demokratikoki planteatutako egitasmo politikoak gauzatzeko eta esparru publiko berean bizi diren talde nortasun ezberdinei begira.

## 3.-Autogobernurako sistema berria.

Beharrezkoa da euskal hiritarrentzako autogobernu sistema berria garatzea, euskaldunon borondatearekiko errespetuan oinarrituta, XXI. Mendeko erronkei erantzuna emateko.

## 4.-Garapen sozio-ekonomikorako eredu propioa.

Hezkuntza bikaintasunean, berrikuntzan, gizarte kohesioan oinarritutako eta bokazio globala duen euskal estrategia ekonomikoari bultzada ematea. Ezinbestekoa da kode etiko-ekonomikoaren, pertsonen bikaintasunaren eta ezagutzarako esparru aurreratuaren aldeko apustu argia egitea, gure herrian lehiakortasunari bultzada eman diezaion.

Emakume eta gizonen arteko egiazko berdintasunaren alde eta gutxien duten pertsonen integrazioaren aldeko apustua egingo duen herri ereduari bultzada ematea; bizkortze demografikoaren aldeko apustua egingo duena, garapen jasangarriaren testuinguruan eredu bidezko eta aurreratuaren aldeko apustua egingo duena.

## 5.-Nortasun eta hizkuntza erkidegoaren garapena.

Arrotasun osoz baloratu behar dugu nortasun propio, anitz eta munduari irekia duen erkidegoko kide izatea. Horrek eragin baikorra du gure garapenean eta herri eta kulturen arteko elkarrizketari irekita egongo den mundu mailako eszenatokia bultzatzen du.

Honek ere " euskara lurraldean " oinarritutako harremanen instituzionalizatzea ere suposatzen du, hori delakoan euskal erkidegoa munduan kokatzen duen lurralde partekatua.

## 6.-Euskadiren nazioartetzea.

Euskadiren nazioartetze ekonomiko, politiko eta kulturalerako egitasmoa bultzatu behar dugu. Nazioarteko erkidegoan era naturalean integratuta, nazioarte sareetan parte hartze instituzional, sozial eta ekonomikoa sustatu behar dugu dimentsio politiko eta ekonomikoko nazioarte mailako sare guztietan.

## 7.-Hiritargo aktiboan oinarritutako kultura zibikoa.

Kultura politiko berria garatu behar dugu, parte hartze sisteman oinarritua eta gobernua eta parte hartze demokratikoa ulertzeko modu berrira bideratua.

Hauek dira  Euskadirentzako etorkizun berria eraikitzeko xedez planteatzen den herri egitasmoaren eskakizunak. Gure abiapuntua, pertsonen borondatea da, bere baloreak eta bizikidetza kulturala.

Pertsonei sustapen eta garapen aukerak eman nahi dizkiegu. Gure garapena askatasuna, solidariotasuna, justizia,konpromisoa eta ardura moduko baloreetan oinarritu behar da.  Eta, euskal nortasuna sustatu nahi dugu, kultura eta hizkuntza propioekin, mundu mailan nortasun berezia ematen diotelarik.

Oinarri horien gainetik eraiki nahi dugu mundu globalean abangoardian egongo den Euskadi;  mundu zabalean kokatuta, mugarik gabe eta harremanak elkarren arteko loturan oinarrituta ezarriko direlarik. Aurrera egingo dugu , hezkuntza eta ekonomia hobetuko dugu, modernizazioa sustatuko dugu, jasangarritasuna bermatuko dugu eta ongizatea bultzatuko dugu.

Euskal erkidegoak  gizaki garapenaren Europako lehen tokien artean kokatzea bilatzen du, gure eskarmentuak gidatuta: erakundetzea eta autogobernu prozesua sendotzea, euskal hiritar gehienen borondateari erantzuteaz gain, hazkunde eta ongizate sinonimoa baita.

ADOS egitasmoak abangoardiako gizarte batentzako eredu propioa proposatzen du, euskal hiritarrei aurrera begiratzea , aurrera egitea  eta haztea ahalbidetuko diguna.

Honakoa da ADOSekin planteatzen dugun helburua: Euskadirentzako etorkizun egitasmo  berria eraikitzea eta osatzea.

# ADOS

## Un proyecto de futuro para la Euskadi Global.

*Junio 2010*

## I.-Introducción.

ADOS es una "iniciativa política, económica y social" propuesta por EAJ-PNV que tiene como objetivo desarrollar un proyecto para el futuro de Euskadi. Un proyecto de amplia base, elaborado en estrecha colaboración con la sociedad vasca y que tiene en cuenta sus demandas mayoritarias.

La iniciativa ADOS se articula en torno a los siguientes cuatro objetivos:

1. El desarrollo de un proyecto que fortalezca y consolide el espacio vasco de convivencia democrática en los próximos años.

2. Desarrollar un nuevo sistema de autogobierno de los vascos para dar respuesta a los retos del siglo XXI en el respeto a todas las opciones democráticas sobre la base de un espíritu de acuerdo.

3. El desarrollo de un proyecto para la internacionalización económica, política y cultural de Euskadi.

4. El desarrollo una nueva cultura política basada en la ciudadanía activa.

EAJ-PNV desarrollará este proyecto en colaboración y contraste permanente con los siguientes agentes:

1. La sociedad civil.
2. Los agentes económicos y sociales vascos.
3. Los actores políticos vascos.
4. Los actores económicos, políticos y culturales internacionales.

El proyecto ADOS se desarrollará, a su vez, en cuatro fases, atendiendo en cada una de ellas a los agentes citados:

FASE 1: Diagnóstico de nuestra situación política, económica y social, y presentación de la misma a la sociedad.

FASE 2: Contraste, aportaciones y trabajo compartido con la sociedad para desarrollar el proyecto de futuro para Euskadi.

FASE 3: Presentación y difusión social del proyecto.

FASE 4: Propuesta de desarrollo institucional de la iniciativa ADOS en las instituciones vascas, en el estado y en las instituciones internacionales.

La iniciativa ADOS nace impulsado por la vocación de EAJ-PNV de plantear un proyecto compartido para seguir construyendo la nación vasca, así como por la voluntad de situar a Euskadi en posiciones de vanguardia en un mundo globalizado.

El proyecto ADOS tiene dos puntos de partida estratégicos y complementarios: el análisis de la situación política, económica y social de nuestro entorno inmediato e internacional, por un lado, y el nivel de desarrollo alcanzado en nuestro sistema de autogobierno, por otro. ADOS pone en marcha, por tanto, un proceso de reflexión y de propuestas para modernizar Euskadi y para adecuar su sistema institucional a las necesidades de la sociedad vasca en función de su personalidad diferenciada.

## II.- Principios guía de la iniciativa.

EAJ-PNV es el primer partido político vasco, y como tal asume la responsabilidad de impulsar un nuevo acuerdo para un proyecto de país compartido. Por una razón fundamental: los actores políticos hemos constatado la inviabilidad de articular un proyecto común desde la unilateralidad y desde la negación de las ideas del “otro”.

La construcción de un futuro común para nuestro país pasa por reconocer la posibilidad de poder materializar o hacer realidad cualquier proyecto de país reconocido democráticamente en Euskadi y por la necesidad de pactar las condiciones de desarrollo del mismo.

La libertad, la responsabilidad, la solidaridad y la justicia social son los valores que guían esta iniciativa. De este modo se actualizan los principios de inspiración humanista de EAJ-PNV, partido que refleja en su trayectoria el ideario común compartido por las grandes corrientes democráticas europeas.

El compromiso de EAJ-PNV con la nación vasca ha sido evidente: el fortalecimiento de las instituciones de autogobierno y la apuesta por el progreso económico y social han hecho posible que Euskadi haya llegado a los actuales niveles de bienestar y modernización. Esos son los motores que han dinamizado el progreso del pueblo vasco, y, como tales, son los que van a garantizar este nuevo proyecto de futuro que presentamos ahora.

# III.-Diagnóstico y punto de partida

La iniciativa ADOS asume como punto de partida el diagnóstico de los procesos de reflexión Think Gaur Euskadi 2020 y Think Gaur Nafarroa 2020, elaborados en los últimos meses.

Como todos sabemos, la realidad vasca viene determinada por las transformaciones sociales, económicas, culturales y políticas que se han producido en nuestro entorno. Euskadi es hoy un país plural desde el punto de vista cultural, político, social, caracterizado por los siguientes elementos:

1.- El proceso de globalización y las TIC han cambiado, ampliándolo, el horizonte de relaciones de la sociedad vasca. En consecuencia, el espacio vital de Euskadi es más rico y complejo. La realidad, en el ámbito de referencia individual (la “persona”), y en el ámbito de referencia colectiva (la “comunidad”), es mucho más plural y compleja, y los cambios en este ámbito se producen con una gran celeridad.

2.- Aunque el grado de bienestar social es elevado, el mercado y el consumo ejercen una gran influencia en la vida de las personas, limitando y reduciendo la presencia social de valores de compromiso comunitario que han sido tradicionales entre nosotros. Es cierto que el progreso económico se ha producido gracias a un esfuerzo compartido entre la iniciativa privada y la iniciativa pública. Sin embargo, no ha venido acompañado por un fortalecimiento de los valores e incentivos sociales capaces de consolidar un desarrollo económico responsable. Como el enriquecimiento y crecimiento económico de base especulativa no han sido rechazados con la contundencia suficiente, se ha originado un enorme debilitamiento en la valoración del trabajo y el esfuerzo personal.

El espacio social propio de la actividad política está viviendo también importantes transformaciones que condicionan la relación de los ciudadanos con la política:

1.- Se están consolidando instituciones políticas como la Unión Europea, en respuesta al proceso de globalización económica.

2.- La pujanza y capacidad de influencia de los espacios económicos y sociales emergentes está reconfigurando la capacidad real de la acción política para articular un espacio público de bienestar y de seguridad.

3.- El individualismo está cada vez más presente en nuestro entorno, con la consiguiente merma de la responsabilidad con respecto a la comunidad. En este contexto, se debilita la participación política y se incrementa la distancia entre la sociedad y la política en general. El funcionamiento de los partidos políticos acusa de forma directa este cambio.

4.- En las sociedades democráticas avanzadas, la producción y socialización de la cultura política se encuentra cada vez más ligada a los nuevos mecanismos de información y comunicación, lo cual condiciona la cultura democrática y los procesos de toma de decisión.

Este conjunto de enormes transformaciones, agravado en una coyuntura de crisis como la actual, tiene importantes implicaciones en nuestro futuro. Máxime en momentos en los que la cultura ética y la participación política se debilitan, como se ha apuntado.

Tenemos en Euskadi otro elemento que es imprescindible incorporar a la reflexión, porque perturba de forma grave nuestra convivencia: el terrorismo de ETA, una realidad de violencia única en el contexto de las democracias occidentales. Esta violencia ha provocado, sin ningún argumento que la justifique, sufrimiento y dolor, dentro y fuera de Euskadi. Ha destruido mucho. No ha construido nada. Su actividad ha ocasionado un daño irreparable, y ha erosionado los espacios de convivencia pública y la cultura democrática en nuestro país.

La sociedad vasca exige a todos los actores políticos una desvinculación clara y absoluta de la violencia y el terrorismo, y un compromiso nítido con las vías exclusivamente políticas y democráticas.

Es absolutamente necesario impulsar un escenario vasco de convivencia compartida, y afrontar desde los valores democráticos comúnmente reconocidos los retos de una sociedad compleja, plural y avanzada. Las consecuencias negativas de la violencia terrorista deben servir a la sociedad como experiencia para construir un futuro de convivencia sólido y válido para las generaciones futuras.

## LA INICIATIVA ADOS

Es así como la iniciativa ADOS plantea abordar la construcción de un nuevo proyecto de país para Euskadi. Y lo hace partiendo de la realidad vasca, desde la conciencia de las barreras que debe sortear y proponiendo las bases para edificar un proyecto integral de país desarrollado de forma compartida.

**La cuestión vasca.**

En Euskadi existe un problema político de raíz histórica. El reto es lograr extender la aceptación social de una identidad política compartida. Todos los proyectos deben ser legítimos y factibles, siempre y cuando se lleven a cabo de acuerdo con los derechos humanos y los principios democráticos. Y todos los proyectos van a tener que contar siempre con el impulso y la aprobación directa de los ciudadanos, conscientes de su capacidad y derecho a decidir libre y democráticamente el futuro de Euskadi.

En el momento histórico de la transición democrática, el Estatuto de Gernika supuso un punto de encuentro, porque suscitó la adhesión de actores políticos que no compartían el mismo sujeto de legitimación política. Sin embargo, el Estatuto ha visto modificado su sentido de acuerdo y pacto originario, porque se ha frenado de forma activa su potencialidad de desarrollo. Por esa razón, la realidad de los hechos va a imponer la necesidad de afrontar en Euskadi una nueva transición y un nuevo proceso constituyente que permita la reconfiguración de las relaciones institucionales y políticas en un nuevo marco.

En este contexto, la iniciativa ADOS se inspira y retoma el espíritu de impulso de la nación vasca que hace 50 años planteó el Lehendakari Agirre. El Lehendakari Agirre tenía una clara vocación europeísta y desde esa perspectiva planteó el desarrollo de Euskadi. Esa “visión de futuro” vuelve a tener hoy plena vigencia en una realidad comunitaria y global más abierta e interdependiente. Es nuevamente la construcción europea la oportunidad y el horizonte de EAJ-PNV para buscar entre todos una respuesta desde Euskadi adecuada a los retos del nuevo mundo global.

Euskadi es hoy una nación en términos políticos, económicos, culturales. Desde el punto de vista económico, Euskadi se articula sobre las posibilidades que ofrecen el Concierto y el Convenio Económico. Desde una perspectiva cultural, Euskadi debe fortalecer su propia personalidad cultural y lingüística. Se trata de una realidad que define la comunidad vasca, el territorio del euskera, un ámbito de referencia propio y diferenciado en Europa. En términos de bienestar social, Euskadi presenta un modelo eficaz y dimensionado de servicios y políticas públicas para la garantía del bienestar de las personas. Desde el punto de vista político, Euskadi es una realidad política, un sujeto de legitimación política, con un nivel de autogobierno y un proceso avanzado de desarrollo institucional con personalidad propia y con autonomía.

ADOS busca ahora el desarrollo de esta realidad nacional desde una perspectiva propia, donde adquieren especial protagonismo los propios vascos y el conjunto de la ciudadanía. Debemos lograr la máxima adhesión posible en torno a estos principios compartidos en el seno de la realidad vasca. Queremos plantear un nuevo proyecto de país para el futuro. Ese es nuestro reto.

**Las barreras que están dificultando el avance**

La falta de comunicación política entre los diversos agentes deriva en la nada. El enfrentamiento permanente institucionaliza el conflicto y debilita la configuración de mecanismos comunes para avanzar como país. Es necesario superar esta enorme desconfianza, que hunde sus raíces en las siguientes razones:

1. La falta de consenso sobre la dimensión ética en relación a los comportamientos de defensa de los proyectos políticos.
2. Se instrumentalizan proyectos comunes, poniéndolos al servicio de intereses partidarios.
3. Se han sacrificado consensos alcanzados en el pasado a favor de proyectos partidarios de futuro.
4. Se ha abandonado la cultura política de la búsqueda de consensos en contextos complejos, de forma que no resulta fácil encontrar las razones de las propuestas del "otro".

Resulta imprescindible edificar un clima político que permita llegar a acuerdos y posibilite gestionar las diferencias en un contexto normativo compartido. Sólo así se recuperará el clima de confianza entre los agentes políticos, y sólo así se podrá fortalecer el vínculo de la actividad política con el conjunto de la sociedad vasca.

El progresivo debilitamiento institucional vasco, el denominado coste de la "no-Euskadi", ha levantado otra barrera que dificulta de forma seria el avance en nuestro entendimiento. Por un lado, se ha producido un aplazamiento injustificado de las transferencias pendientes. Pero no es esa la única razón: se ha producido también un vaciamiento competencial porque se han aprobado leyes básicas desarrolladas de forma unilateral por el Estado. Además, en estos últimos años se ha acentuado una concepción centralizadora del sistema constitucional del estado.

Por todas esas razones, el espíritu del "Estado plural" que fraguó hace tres décadas se debilita y tiende a desaparecer. Hoy vivimos el retorno a los planteamientos de la "España una y uniforme" que representa en la práctica el cuestionamiento del "hecho diferencial" y de los "derechos históricos" del pueblo vasco. La visión plurinacional no ha avanzado y se ha instalado una nueva visión centralizadora que dificulta no sólo el acuerdo, sino incluso la negociación de un nuevo marco de convivencia.

La prueba más concluyente de esta “barrera” es que las negociaciones sobre las transferencias pendientes se plantean ya, por parte del Estado, de forma exclusiva como contenido “secundario” en el marco de las negociaciones presupuestarias. Y sólo se produce el cumplimiento de lo que en teoría es un acuerdo pactado, en casos de “extrema” necesidad o debilidad.

ADOS quiere superar estas barreras, porque estamos convencidos de que el avance del autogobierno ha supuesto un importante avance político, económico y cultural. La sociedad demanda mayores cotas de bienestar y a los agentes políticos nos corresponde superar las barreras que dificultan el avance del autogobierno.

**Las bases del nuevo proyecto.**

El principal objetivo del proyecto ADOS es profundizar en el principio democrático, planteando una vía de construcción nacional a través de la implicación directa de la sociedad vasca, sujeto de legitimación de todas las decisiones que sobre el futuro puedan adoptarse. Es necesario crear un proyecto en común para los vascos. No hay futuro desde la fragmentación, la división y la perpetuación del antagonismo político. Los pueblos perviven porque son capaces de adaptarse a los nuevos tiempos desde el compromiso con los retos comunes.

En las sociedades modernas y abiertas los cambios políticos se producen de forma muy dinámica, haciendo posible que los ciudadanos adopten decisiones y fortalezcan la progresiva institucionalización de una nueva realidad política. ADOS apuesta por eso por la progresiva institucionalización de Euskadi, y quiere dar respuesta a los requerimientos que una sociedad abierta plantea para su avance y desarrollo en el mundo global.

Así, ADOS plantea un proceso integral de fortalecimiento del país, que sobre la base de un nuevo acuerdo permita una ampliación de nuestro nivel de autogobierno político y económico en virtud del reconocimiento de la existencia de nuestro pueblo como sujeto político. El crecimiento institucional de Euskadi, el crecimiento de la nación vasca, sólo puede producirse a través de un nuevo proyecto que, construido sobre la demanda social de los vascos, active un proceso de crecimiento progresivo y evite el “veto de parte”.

Bajo este planteamiento, ADOS se propone responder a las demandas que los vascos plantean para un proyecto en común que garantice el desarrollo y progreso futuro y que sirvan de base para la implicación de la sociedad.

Estas demandas se plantean en los siguientes términos:

## 1-Un espacio vasco de convivencia democrática

Es necesario fortalecer el espacio vasco de convivencia democrática en los próximos años e impulsar una vida comunitaria basada en la honestidad, la solidaridad, la responsabilidad social, el compromiso por la excelencia y el servicio al bien común.

## 2.-Igualdad de derechos y obligaciones.

Esta garantía de igualdad es la base de una comunidad plural, solidaria y avanzada, que se institucionaliza progresivamente y establece la igualdad de condiciones para la materialización de todos los proyectos políticos democráticamente planteados y para las diversas identidades colectivas existentes en un mismo espacio público.

## 3.-Un nuevo sistema de autogobierno.

Es necesario desarrollar un nuevo sistema de autogobierno de los vascos para dar respuesta a los retos del siglo XXI, basado en el respeto a la voluntad de los vascos.

## 4.-Modelo propio de desarrollo socio-económico.

Hay que impulsar una estrategia económica vasca basada en la excelencia educativa, la innovación, la cohesión social y de vocación global. Es necesario realizar una apuesta inequívoca por un código ético económico, por la excelencia de las personas y por la generación de un entorno de conocimiento avanzado que impulse la competitividad de nuestro país.

Hay que apostar por la igualdad efectiva de hombres y mujeres y por la integración de los más desfavorecidos. Hay que apostar por un modelo de país que apueste por la revitalización demográfica, y por un modelo social justo y avanzado en el contexto de un desarrollo sostenible.

## 5.-Desarrollo de la comunidad de identidad y lengua.

Debemos valorar con orgullo la pertenencia a una comunidad con identidad propia, plural y abierta al mundo. Ello incide de forma positiva en nuestro desarrollo y es una modesta contribución a un escenario mundial abierto al diálogo entre países y culturas.

Esto incluye también la institucionalización de las relaciones sobre la base del “territorio euskera”, el territorio cultural compartido que ubica a la comunidad vasca en el mundo.

## 6.-Internacionalización de Euskadi.

Debemos impulsar un proyecto para la internacionalización económica, política y cultural de Euskadi. Integrándonos de forma natural en la comunidad internacional, debemos fomentar la participación institucional, social y económica en el conjunto de las redes internacionales en su dimensión política y económica.

## 7.-Una nueva cultura cívica basada en la ciudadanía activa.

Debemos desarrollar de nueva cultura política, basada en un sistema de participación, y orientada hacia una nueva forma de entender el gobierno y la participación democrática.

Estas son las demandas que un proyecto de país en común plantea con el objetivo de construir un nuevo futuro para Euskadi. Nuestro punto de partida es la voluntad de las personas, sus valores y la convivencia cultural.

Queremos ofrecer oportunidades de promoción y desarrollo a las personas. Nuestro desarrollo debe basarse en valores como la libertad, la solidaridad, la justicia, el compromiso o la responsabilidad. Y queremos impulsar la personalidad vasca, con sus referentes propios de cultura y de lengua que le otorgan una identidad singular en el mundo.

Sobre esta base queremos edificar una Euskadi de vanguardia, en el mundo global, en un mundo abierto, sin fronteras, y en el que las relaciones se establecen desde la interdependencia. Vamos a avanzar, vamos a mejorar el modelo educativo y económico, vamos a fomentar la modernización, y vamos a garantizar la sostenibilidad e impulsar el bienestar.

La comunidad vasca aspira a ubicarse a la cabeza de desarrollo humano en Europa, guiada por nuestra experiencia previa: fortalecer el proceso de institucionalización y autogobierno es, además de responder a la voluntad mayoritaria de los vascos, sinónimo de crecimiento y bienestar.

ADOS propone un modelo propio para una sociedad de vanguardia que nos permita a todos los vascos mirar hacia delante, avanzar y crecer.

Este es el objetivo que nos planteamos con ADOS: construir y constituir un nuevo proyecto de futuro para Euskadi.